

ELEANIZTASUNA KUDEATZEKO ESTRATEGIAK

1. Sarrera

Euskara eta gaztelera koofizialak izan arren, euskara bigarren maila batean geratzen da noizbait egoera orotan. Gutxiago garelako hizkuntza zaharraren eledun agian, gaztelera hitz egiten dutenek zapaltzen gaituztelako aldian-aldian, edo geure hizkuntza eskubideak galdatzeak beldurra nahiz alfertasuna ematen digulako sarritan, euskal hiztunok euskaraz tratatuak izateari uko egiten amaitzen dugu egoera ugarritan.

Gaztelera hitz egin nahiz jarduteko inertiaren bultzada jasaten dugu etengabe, eta terminologia juridikoak eta testuinguruak zaildu egiten dute sarritan bultzada honi aurka egiteko kemena. Baina honek ez du, elebidun garenok hizkuntza bietan entzunak zein erantzunak izateko eskubidea kentzen.

Horregatik guztiagatik, nahitaezkoa da eleaniztasuna kudeatzeko estrategiak garatzea. Eleaniztasuna bere horretan uztearen bidez euskarak eta euskal hiztunok galduko genuke lehia, emeki-emeki hizkuntzak sektore publikoan duen indarra ahulduz joango litzatekeelako. Eleaniztasuna errealki gauzatu dadin egunerokotasun eta eraginkortasunez, bultzada bat behar du, hain zuzen, euskararen normalizazioaren eskutik erdietsiko dena.

2. Eleaniztasuna interpretazioan

Euskararen erabilera bultzatzeko eleaniztasuna kudeatzeko estrategia edo bideetako bat interpretazioa daukagu. Interpretazioari esker, dokumentu edo komunikazio bide ezberdinak itzultzea posible izan da. Euskal Herriaren kasuan, gaztelaniatik euskarara egindako interpretazioak aurkituko ditugu gehienbat, baina beste hizkuntzetara zabaltzen den tresna da. Gaztelaniaz ez dakien norbait epaitua izan behar bada adibidez, epaiketa unean interprete bat beharko da, komunikazioa posible izan dadin epaiketako alde guztien artean.

Non dauka interpretazioak sorrera?

Interpretazioaren sorrera zein izan zen jakin ahal izateko I. Mundu Gerrate-arte atzera egin behar dugu. Benetako interprete eskola izan zela esan ohi dela adierazi zigun Lurdes Auzmendi interpretatzaileak. Hizkuntza politikarako sailburu ordea izandakoak, interpretazioaren oinarria soldaduei eman beharreko aginduetan ezarri zuen. Hizkuntza ezberdin ugari nahasten zirenez, soldadu guztiek ulertu behar zituzten aginduak eta bertan sortu zen interpreteen beharra. 1946ko Nurenberg-eko epaiketa hartu daiteke interpretazioaren sorrera nagusitzat, bertan elkartutako epaile bakoitzak hizkuntza ezberdin bat hitz egiten baitzuen. Orduan existitzen zen interpretaziorako prototipo bat erabili zen komunikazioa posible izan zedin eta nahiz eta arazo ugari izan, ongi atera zen, interpretazioaren munduari hasiera emanez.

Hala eta guztiz ere, duela 10 urte besterik ez zen Interpretazio lizentziatura sortu Gasteizen. Espainia azkena izan zen ikasketa hauek barneratzen. Soldaduska egin nahi ez zuten kontzientzia-objektoreengatik sortu zen interpreteen beharra, kontzientzia-objektore izateagatik epaituak izango zirenek interpreteak behar zituztelako epaiketetan zehar.

Gaur egun esan bezala lizentziatura bat eskaintzan da interpretazioaren munduan murgildu nahi dutenentzat, baina Euskal Herrian interprete gehienak filologiatik datozenak dira. Honek islatzen du interpretazioa lanbide berri bat dela, bai Espainia mailan baita Euskal Herrian ere.

Zenbateko garrantzia izan du interpretazioak Euskal Herriko auzitegi eta prozesu juridikoetan? Eta gaur egun?

Epaiketa batean aldeek diotena ulertzeak bere biziko garrantzia dauka. Abokatu eta bezeroaren arteko eta epaitutakoen eta epailearen arteko komunikazioa posible egiten dute langile hauek.

Lehen aipatutako kontzientzia-objektore izateagatik epaituak izan behar zirenen interprete izateak garrantzi handia izan zuen, eta interpreteak suaren erdian aurkitu ziren momentuko egoera zaila zela eta.

Interpretazioaren ikasketak 10 urtez bakarrik existitu izanak, lanbide honek duen benetako garrantziari itzal egiten dioela dirudi, baina esan beharra dago euskararen normalkuntza lortzeko bidean garrantzi nabaria izan duen eta oraindik duen lanbidea dela.

Hala eta guztiz ere, arlo juridikoan euskararen normalkuntza lortzeko daukagun tresna honi ez dirudi probetxu gehiegi ateratzen zaionik. Lurdes Auzmendik emandako hitzalditik atera daitekeen ondorioa da hau, eta ondorio hau oinarritzeko informazioa ere eman zitzaigun hitzaldi hartan.

Interpretazio mota ezberdinak daude baina Euskal Herrian erabili den bakarra esan ostekoa da. Auzitegi eta epaitegietan interpretazio mota hau erabiltzen da, zeinetan interpreteak datuak jasotzen dituen hizlariak hitz egiten duen bitartean eta 10 bat minutu igaro ondoren interpretea sartzen da jokoan. Nahiz eta hau izan den erabili den interpretazio mota bakarra, Donostiako epaitegiek aldi bereko interpretazioa burutzeko tresneria badaukate: kabina, aurikularrak etab, baina ez da inoiz erabili.

Tresneria izateko inbertsioa egin izanak interpretazioa posible egiten dituzten bideak izateko eta hauek inoiz ez erabili izanak, lehen aipatu bezala baliabide hauen probetxu eza erakusten du. Interpretazioaren helburuetako bat auzitegietan euskara erabiltzeak oztoporik ez suposatzea da. Baina hori gertatu dadin baliabideak izan arren erabiltzen ez badira, interpretazioaren erabilgarritasunak garrantzia galtzen du.

Interpretazioak etorkizun oparoa izango al du?

Nahiz eta daukagun baliabideen probetxu handirik ez den egiten (Donostiako auzitegiaren kasuan ikusi dugun bezala), urtez- urte interpretazioaren egoera hobera doa. Erakunde ugari dira interpretazioaren garrantzia areagotu nahian lanean ari direnak: EIZIE, AIIC, AIC eta APTIJ adibidez.

Interpretazioa hizkuntza gutxituen egoera babesteko ere dago eta horretarako, duela 2 urte Europar Batasunak 2010/64/UE zuzentarau bat onartu zuen, urriaren 20ean indarrean sartuko dena. Zuzentarau honi esker, asistentzia egokia eman beharko zaie epaiketa batean parte hartzen zaienei, dagokion herrialdeko hizkuntza ez badute ezagutzen.

Orain arte kexa ugari jaso dira, epaiketen zehar demandatuak ez zuelako hizkuntza ezagutzen. Urrian indarrean sartuko den zuzentarau honi esker pertsona guztiek jaso ahalko dute interprete eta itzultzaileen kalitatezko zerbitzua. Ez dago esan beharrik euskarak, beste hainbat hizkuntza gutxitu bezala, zuzentarau honengatik onura aterako duela, herritarren hizkuntza eskubideak benetan bermatuak izango dira eta.

3. Eleaniztasuna itzulpengintzan

Itzulpengintza maiz interpretazioarekin nahasten den kontzeptua da, baina lanbide ezberdinak dira nahiz eta lotura estua izan. Interpretazioa aldi berean egiten den bitartean, itzulpengintzan denbora dago, itzuli nahi den testua hizkuntza betetik beste batera itzulia izateko. Zalantzarik izanez gero behin betiko itzulpena eman aurretik nahi diren kontsulta guztiak egin daitezke.

Interpretazioan ikusi dugun bezalaxe, itzulpengintza ere herritarren hizkuntza eskubideak babesteko sortutako tresna edo lanbidea da. Euskal gizartean eleaniztasuna izan da helburu nagusietako bat, gaztelaniak euskara zapaldu duelako betidanik. Azken urte hauetan, euskararen egoera asko hobetu dela ukaezina da, baina benetako eleaniztasun bat lortzeko oraindik bide luze bat dago gure aurrean.

Noraino iristen da itzulpengintza?

Itzulpen egoki bat egiteak izugarritzko garrantzia dauka bai administrazioan baita arlo juridikoan ere. Lanbidearen izenak adierazten duen bezala, dokumentu mota ezberdin ugari itzultzea dute helburu nagusitzat itzultzaileek.

Administrazioan itzulpengintzak duen oihartzuna agian ez da arlo juridikoan duen bezalakoa, baina Euskal Herrian, euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak direnez, bai dokumentu, inprimaki eta komunikatu nahi dena bi hizkuntzetan jaso ahal izatea eskubide bat da herritar guztientzat.

Eleaniztasuna kudeatzeko estrategia onek beraz bere garrantzia dauka, itzultzaileek gabe gaztelaniatik euskarara (edo alderantziz) dokumentuak ezingo lirakeelako itzuli, eta beraz, ezingo litzatekeelako herritarren hizkuntza eskubidea bermatu.

Bai interpretazioa baita itzulpengintza, beraz, eleaniztasuna bermatzeko lan egiten dute arlo ezberdinetan. Bi sistemak erabiliz, euskararen normalakuntza lortzea errazagoa izango delakoan gaude, arlo ezberdinetan euskarak duen pisu eta garrantzia areagotuz baitoa denboraren poderioz.

4. Eleaniztasuna auzitegi eta epaitegietan

Auzitegi eta epaitegiak, herritar gehienentzat leku urrunak dira, justiziaren gotorleku. Justizia banatzearen ahala dutenen esparrua da, maila goren batean irudikatzen duguna eta errespetu handia sortzen diguna. Sarritan, geure hizkuntza eskubideak bigarren maila batera pasatzen dira leku hauetara jotzearen arrazoen pisuak estaltzen baititu. Horregatik, eleaniztasuna erreala izan dadin, hau da, euskara gaztelarekin bat, parean egon dadin Auzitegi eta

epaitegietan, bertako dokumentu zein adierazpen ezberdinetan, euskararen normalizazioan aurrera egitea beharrezkoa da.

Hain zuzen, Xabier Balerdi, Eusko Jaurlaritzako arlo tekniko eta dokumentalaren arduraduna da. Berak azaldu zizkigun, azken hamaika urteetan, epaitegietan euskararen normalizatorako emandako urratsak eta etorkizunera begira eraikiriko planak. Hasiera batean, epaitegietan euskara barneratu nahi izateagatik errezelozko begiradak jasaten zituztela aitortu zigun, baina baita, esfortzuaren bidetik, benetako eleaniztasuna erdiesteko bidean geundela ere.

Nola lortu dezakegu euskara eta gaztelera maila berean egotea?

Nahiz bidea zaila izan, oztopo guzti hauek gainditu behar ditugu, **helburu estrategiko** batzuk hartuz xede nagusia erdiesteko muintzat. Hala nola:

1. Abokatuak sentsibilizatu.
2. Herritarren eta profesionalen arteko harremanak euskaraz bideratzea bultzatu.
3. Bitartekoak ipini, koordinazio eta elkarlanari begira.

Helburu hauek ikusmugan jarriz, epaitegi eta auzitegietan hainbat pauso eman dira Eusko Jaurlaritzako teknikarien laguntzaz. Pauso hauek dakartzaten bitarteko guzti horiek euskararen normalizazioa lortzen laguntzen dute eta eleaniztasuna kudeatzeko estrategia bikainak dira.

Ze bide erabili dokumentu elebidunak modu egoki zein errazean gauzatzeko?

Dokumentu elebidunak osatu behar dituzten langileen lana asko errazten duen baliabide bat dago. Askotan, langileek txantiloiak izaten dituzte dokumentu mota ezberdinen idazketa modu errazean eta eraginkorrean gauzatzeko. Baina lan bera, bi aldiz, bi hizkuntzetan egitea errazteko asmoz, **informatikara** jotzen dute. Hau da, edozein hizkuntza-zalantza argitzeko internetera jo beharrik izan gabe, baliabide informatiko jakinak dituzte eskura. Honela, adibidez, badute aplikazio bat, zalantza zehatza edo puntuala leku batean idatziz, erantzuna agertzen zaiena beste hizkuntzan (beraiek euskara hitz egin nahiz ez), izen berezietan ere funtzionatzen duena.

Euskara hutsean lan egin nahi badugu, zer?

Euskara hutsean lan egiteari dagokionez, badaude baliabide batzuk jardun hau errazten dutenak. Formula ezberdinak daude euskaraz. Agian, langileak testu bat idatzi behar du euskaraz soilik, baina nahiz eta euskara hitz egin, zalantzak edo ziurgabetasunak sor daitezke. Kasu hauetan zalantzak argi daitezke euskarazko formularen gainean sagua ipiniz, modu honetan gaztelera-ko forma ematen baitzaie. Era berean, posible da euskara hutsean argitaratzen den dokumentu bat, euskara hitz egiten ez duen idazkariak sinatu behar izatea. Kasu honetan, dokumentu bera gaztelera-ko bertsioan sinatuko luke idazkariak, azken finean edukia ulertzeko funtzioa soilik lukeena eta epaitegietan bertan geratzen dena dokumentua.

Badute beste baliabide bat, oso erabilgarria, erabilerraza eta eroso dena. Epaitegietako langileek dokumentuak idazteko erabiltzen duten programak, tresna bat du, *toolbar* edo botoitxo baten bidez erabiltzen dena. Aplikazio honetan, euskara juridikoan orain arte idatzi den guztia dago (200.000 unitate inguru). Modu honetan, *toolbar* horretan gaztelera-ko

formula sartzen badugu, berak, automatikoki euskarazko aukera ezberdinak ematen ditu. Tresna hau asko erabiltzen da, esan bezala oso erraza baita erabiltzen eta gainera erraztasunak ez baitio kalitatea eta eraginkortasuna kentzen.

Euskaraz egin ahalko da deklaraziorik? Eta langile juridikoak euskara ulertzen ez badute?

Deklarazio edo adierazpenei dagokionez, hauek hizkuntza batean edo bestean egoteak ulermen arazoak suposatu ditzake pertsona batzuentzat. Adierazpenok grabatu egiten dira, edozein duda argitzeko langile juridikoek berrikusi ahal izateko. Adierazpen hau euskaraz egiten bada, baina norbaitek, adibidez fiskalak, ez badu ulertzen euskara, azpi-tituluz hornitzen dira adierazpenak, arazoa konponduz.

Zer egin euskaraz prozesu gehiago egon daitezen?

Arestian adierazi lez, **abokatuak sentsibilizatu** egin behar dira euskararen erabileraren garrantziaren inguruan. Izan ere, nahiz eta abokatu asko izan euskara dakitenak, oso gutxi dira berau erabiltzen dutenak euren eguneroko jardunean. Ez dute euskaraz lan egiteko inizatiba edo asmorik, azken batean, euskaraz aritzeak onurak baino gehiago trabak ekarriko dizkietela pentsatzen baitute. Ondorioz, eragozpenak edo luzapenak jasango dituztenaren kezka bultzatuta, saiakera hori saihesten dute. Gaur egun, abokatuak euren lana euskaraz egitea ahalbidetzen zein errazten duten tresna eta baliabideak aurki ditzakegu sarean, adibidez, justizia.net-en agiri anitz daude eskuragarri.

Lan guzti hau borobiltzeko, ezinbestekoa izango da operadore juridiko guztiak bildu eta lantalde osatu bat eratzea, jarraiki, hauen lana munduari zabaldu eta komunikatzeko.

Ikus dugun gisan, Eusko Jaurlaritzak eginiko lana eta inbertitutako esfortzua handia da, baina nahitaezkoa da mundu juridikoko profesionalok gure aldetik ahal duguna egitea, hiztegi, baliabide, corpus zein tresnak, erabilerarik gabe ezerezean geratzen baitira.

5. Ondorioa

Eleaniztasuna hitza entzuten dugunean utopia moduko bat dela iruditzen zaigu batzuetan. Baina ikusi dugun bezala lortu daitekeen eta lortuko dugun zerbait da. Arlo juridikoan behintzat, eleaniztasuna posible egiten dituzten bideak daude, interpretazioa eta itzulpengintzaren kasuetan ikusi dugun bezala. Hala ere, dauzkagun baliabideei ematen diegun erabilera kontuan hartuta, eleaniztasuna lortzeko askoz gehiago egin daitekeenaren sentsazioa daukagu. Hala ere, aipatzekoa da azken 10 urte eskas hauetan egindako lana eta lortutako guztia. Are gehiago, urrian indarrean sartuko den Europar Batasuneko zuzentarau horrek eleaniztasunari bidea erraztuko diola uste dugu, orain arte egindakoa indartuz eta euskara erabiltzeko eskubidea bermatuz.

Baina honetaz gain, auzitegietan bertan burutzen den lanean ere erreparatu behar dugu. Langileek euskara gaztelania bezain erraz eta efizienteki erabili ahal izateko baliabideak badituztela ikusi dugu. Inprimaki eta txantilo ugari dauzkate eskuragarri, sortzen zaizkien zalantzak argitzeko, euskaraz erdaraz bezain erraz jarduteko eta hiritarren hizkuntza eskubidea errespetatzeko. Dena edo ia dena informatizatua egoteak langileen lana arinagoa egiten du,

beraz, ez dago aitzakiarik euskara erabiltzeak oztopo bat suposatzen duela pentsatzeko. Baina hau ez da hiritarren duten ideia berdina, eta hor dago gakoa.

Auzitegietako idazkari, abokatu eta langile guztiak euskaraz aritzeko munduko erraztasun guztiak izan arren, hiritarrek daukate azken hitza, guk hain zuzen. Guk erabaki behar dugu ze hizkuntzetan jardun nahi dugun eta horren arabera mekanismo guztiak jarriko dira martxan: inprimakiak, dokumentazioa, interpreteak etab. Abokatuak eta arlo juridikoaren parte diren guztiak sentsibilizatu behar dira euskara erabiltzeko, baina hiritarrak dira azken finean erabaki behar dutenak.

Guk ikusi ditugun lorpen guzti hauen berri izan beharko lukete hiritar guztiek. Guk daukagun informazio guzti hau denen artean banatu beharko litzateke, euskaraz aritzea oztopo bat ez dela jakin dezaten. Argi dago benetako eleaniztasuna lortzeko oraindik lan asko egin beharra dagoela, baina emandako eta etorkizunean emango diren pausuen berri hiritarrek eduki beharko genuke, gure esku baitago euskara gaztelaniaren pare- parean egotea lortzea.